

BERANGOKO UDAL DANTZA ESKOLA
ESCUELA MUNICIPAL DE DANZA DE BERANGO
2017-18 IKASTURTEA

ESPEZIALITATEAK:

DANTZA SORTZAILEA

5 eta 7 urte bitarteko ikasleei zuzenduta

Helburuak:

- Umeek sortzeko, irudikatzeko eta behatzeko duten aukerak handitzea...
- Dantzaren elementuak erabiltzeko gaitasunak handitzea eta adierazpen gaitasunean duten eragin positiboa ulertzea.
- Norberarekiko harremana, emozioak eta sentipenak lantzea, taldeko harremanetara heldu arte.

DANTZA KLASIKOA

8 urtetik gorako ikasleei zuzenduta

8 eta 10 urte bitartean, balletaren oinarrizko mugimenduak eta hitzak ikasten dituzte ikasleek. Antzerki dantza mota guztien oinarri teknikoa da eta, horren bitartez, mugimenduaren ildoak, ardatza eta oreka, jarrera eta koordinazioa, malgutasuna eta grazia eraikitzen dira. Oinarrizko mailan eta erdi mailan ikasten den teknika klasikoa landuagoa da, eta mugimenduzko esaldiak zailagoak dira. Mugimendu horien artean, biraketak, saltoak eta puntako zapatiletan egindako lana daude. Ikasketetan aurrera egiteko, mugimenduaren adierazpena eta dantza esaldien interpretazioa landuko dira.

DANTZA GARAİKIDEA

16 urtetik gorako gazte eta helduei zuzenduta.

Dantza garaikidearen bitartez, sormenaren garapen handia lortzen da eta mugimendu askeagoak egin daitezke. Bestalde, norberaren gorputzarekiko kontzientzia hartzen da eta aukera bereziak ematen ditu espazio, denbora eta dinamikaren aldetik. Balletarekin erkatuta, ez da hain zorrotza eta bere teknika propioak ditu:: Graham, Cunningham, Limón, Horton, Release...

Helduentzako DANTZA KLASIKOA

Gorputz bakoitzak dituen arazoak errespetatu egiten dira klase hauetako teknikarekin, eta edonork aprobeitza dezake sasoi onean egoteko, giharrak bizkortzeko eta gorputzaren jarrera hobetzeko, abdominalak indartzeko, malgutasuna lantzeko eta koordinazioa garatzeko, eta erritmoa hobetzeko.

TARIFAK

Espezialitatea	Sortzailea	Klasikoa	Garaikidea
Erroldatuak	24€/hilero (12/hilero)	24€/hilero	24€/hilero (12/hilero)
Ez erroldan	36€/hilero (18/hilero)	36€/hilero	36€/hilero (18/hilero)
Klase kopurua astean	2 (1)	2	2 (1)

Taldeak sortzeko kontuan izango dira adinak, mailak eta espezialitateak.
Ordutegia 17:30etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera, irakasleekin adostu ondoren.



BERANGOKO UDAL DANTZA ESKOLA
ESCUELA MUNICIPAL DE DANZA DE BERANGO



IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
2017-18 IKASTURTEA

Administrazio gestioa/ Gestión administrativa: **Berangoko udala**

Gestio pedagogikoa eta artistikoa/ Gestión pedagógica y artística:
CDART. Ana Rosa Tercero

Tokia/ Lugar:
C.P. Berango-Merana H.I. (gimnasio)

BERANGOKO UDAL DANTZA ESKOLA

Berangoko Dantza Eskola 2014ko urtarrilean ireki zen. Udaleko gobernu taldearen ekimenez Ana Landa alkate and. buru dela.

Udala Arduratzen da administrazio gestioaz.

Ana Rosa Tercero CDART dantza zentroa arduratzen da gestio pedagogikoa eta artistikoa zuzentzeaz.

Helburu nagusia kalitatezko dantza eskola bat sortzea izan da, eta dantza herrira hurbiltzea, prezio herrikoiak jarritz.

Dantza eskola irekiak eskainiko dira, hiruhilero egindako lana erakusteko.

Ikasleek koreografiak dantzatu eta antzezteko aukera izango dute, ikasturtean zehar.

Beste elkarte eta entitateekin elkarlanean aritzeko aukera egongo da, Berangoko bizitza kulturala aberasteko xedez.

Ordutegiak, taldeak eta espezialitateak handitzeko, kontuan izango dira ikasleen nahiak.

TALDE PEDAGOGIKOA

Dantza eskolak ematen dituztenak esperientzia handiko profesionalak dira.



ANA ROSA TERCERO.

- Dantza klasikoaren pedagogian lizentziatua.
- Nazioarteko jardunaldietan irakasle gonbidatua.
- Begoñako Andra Mari irakasleen unibertsitate eskolako irakaslea.
- Hizlaria Deustuko unibertsitatean.
- Irakasleen prestakuntzarako GARATU ikastaroak eman ditu.
- Dantza klasikoa irakatsi du 30 urtez.
- CDART zentroko zuzendaria, koreografoa eta irakaslea.
- Hainbat sari irabazi ditu koreografo eta enpresari moduan egindako lanagatik.

Dantza ikasketei buruzko zalantzak galdetu irakasleei.



VERÓNICA VAN HORENBEKE.

- Dantzan trebatua, Ana Rosa Tercero eta prestigiosko beste irakasleekin.
- Begoñako Andra Mari irakasleen unibertsitate eskolako irakaslea 2014an.
- Dantza irakaslea 2001etik aurrera.
- Nafarroako unibertsitateko Arkitekto titulua du.
- Koreografia tailerreko irakaslea.
- Gorputz adierazpeneko irakaslea.
- Gaur egun dantzari profesionala da.
- Sariak irabazi ditu hainbat dantza lehiaketetan interprete bezala.
-